


**Otsailak 15** • Antxeta irratia martxan jarri zuten Hendaian. Txingudiko badian entzun daiteke, Ipar eta Hego Euskal Herrian.

helburua jarri zuten. Gailiziako telebista publikoak eta EITBk hainbat dokumentalen ekoizpenean elkarrekin egin dute lan.

**10 • Sogecable eta Via Digital plataformek talde bakarra osatzeko akordioa sinatu zuten**
Telefonicako presidente Cesar Alierta eta Prisa taldeko buru Jesus de Polancok hartu zuten erabakia, eta telebista ordainduaren monopolioa bereganatu zuten. 2,5 milioi etxetara iritsiko dira bat-egite horren bidez.

**31 • ETBI kateak 'Basetxea' lehiaketa saioa aurkeztu zuen**
Bizkaiko K-2000 ekoiztetxeak egindako saioa zen, eta bizikidetza eta arrisku kirolak nahasten zituen. Saioaren aurkezlea Julian Iantzi lesakarra zen, eta udako programazioko apustu gogorrena izan zen.

## EKAINA

**21• EITBk lehendabiziko egoitza digitala inauguratu zuen, Gasteizen**
Lau lokutorio, sei edizio-kabina eta telebista plato handi bat ditu egoitza berriak.

**25• Correo komunikazio taldeko Alava7 kate lokalak emisioak hasi zituen**
Programazioa gaztelaniaz egiten dute eta arduraduna Nerea Perez de Nanclares da. Tresneria guztia digitala da.

**29• Arrosa Irrati Ekoizpenerako Zentroaren zuzendaritza izendatu zuten**
Irantzu Jauregi izendatu zuten lehendakari eta Mikel Peruarena koordinatzaile nagusi. Europa mailako egitura babestuko du zuzendaritzak, hiru administrazioak gainditzeko.

**20 • Durango Telebista sortu da**
Kate elebiduna eta pribatua da. Berbaro elkarteak eta EHEk desadostasuna erakutsi dute telebistaren izaerarengatik.

## UZTAILA

**15• Yolanda Alzola A3 kateak fitxatu du**
Aurkezle bizkaitarra *Sabor a verano* saioa aurkezten ibili zen udan, eta udazkenean goizeko magazinera pasatu zuten. Ane Igartiburu, Patricia Gaztañaga eta Emma Garcia aurkezleak bezala, ETBtik Madrilerako jauzia egin du Alzolak.

**23• Jose Antonio Sanchezek Javier Gonzalez Ferrari ordezkatu du RTVEko zuzendaritzan**
Espainiako irrati eta telebista publikoko arduradun nagusi berria *ABC* eta *La Razón* egunkarietan aritu da azkeneko urteetan. «Nabaria da Aznarrek eta PPk gogoko nautela», adierazi zuen Sanchezek.

**29• Euskara eskas Iparraldeko hedabideetan**
Inkesta baten arabera, urria da euskararen presentzia Ipar Euskal Herriko hedabideetan. Eta ETBn «gizarte espainiarraren ikuspegia» ematen da.

## URRIA

**Urriaren 7 • Josetxo Lizartza ETBra itzuli zen**
Astelehen gauetan, *Baietz gogoratu* saioa aurkezten du Lizartzak. «Ez dago askatasunik ideia berrietarako», esan dio EGUNKARIAri leitzarrak.

**11• Mendaro Telebistak lehen emisioa egin du**
Egunero ordubete eskaseko ekoizpena egiten hasi dira, eta gainontzeko orduak Localiaren seinalearekin betetzen ditu.

**5 • 417 miloi euro EITBrentzat**
Eusko Jaurlaritzak eta EITBk 2002-2005eko programa-kontratua sinatu zuten. Jaurlaritzak 417 miloi euro jarri ditu.

**7• Euskalerria Irratiari laguntza kentzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak**
Komunikabideetan euskararen presentzia sustatzeko deialditik Euskalerria Irratia baztertu nahi du Nafarroako Gobernuak.

**16 • Kanaldude herriko telebista Garaziko eta Baigorriko kantonamenduetan**
Euskal Herrian egin dokumentalak eta emankizunak zabaldu dituzte azaroaren 16tik abenduaren 28ra.

GALDAMESKO UDALA
Euskararen alde
Zorionak Egunkaria!

ORTUELLAKO UDALAREN EUSKARA SAILA
946640200
Zorionak eta aurrera beti euskara
Ortuellako Udala • Euskara Zinegotzigoa

SONDIKAN EUSKARAZ BIZI!!
Udal telefono zenbakiak:
Udaletxea: 94 453 50 10
Udaltzaingoa: 656 72 60 06
Polikiroldegia: 94 453 36 72
Liburutegia: 94 453 39 82
Gizarte-zerbitzuak: 94 453 38 89
Mankomunitatea: 94 454 03 50

GORLIZKO UDALA
"bai euskarari."
WWW.GORLIZ.NET <http://www.GORLIZ.NET>
UDALA 94.677.01.93
TUR ETXEA: 94.677.40.00"

ERRIGOITIKO UDALA
Herri Euskalduna